


MAKE-UP MACHINE

2. BEZERO-SEGMENTUA

MakeUp Machine 16 urtetik gorako pertsoneri zuzenduta dago, eta erabiltzaile mota askoren behar eta eguneroko errutinak kontuan hartuta sortu da. Hona hemen produktuarekin bat egiten duten pertsona-profil nagusiak:



16-28 urte bitarteko gazteak, Sare sozialeko tendentzi jarraitzaileak "Trendsetters"

Pertsona hauek gazteak dira eta beti gauza berriak probatu nahi dituzte. Influencerrek (Instagram edo TikToko pertsona ospetsuak) egiten dutena ikustea gustuko dute, eta batzuetan beraiek ere bideoak egiten dituzte euren estiloa erakusteko. Makillajea erabiltzen dute bere nortasuna eta izaera adierazteko, Look berriak azkar eta modu dibertigarrian probatzen dute.

influencerrek gure makillaje-makina erakutsiko dute beren bideoetan (publizitatea eginez) Instagramen historio tarteetan, gure makinaren publizitate bat agertuko da erakusten nola erraza eta dibertigarria den erabiltzea. Horrela, denek ikusi ahal izango dute eta probatu nahi izango dute.

16-25 urteko makillajezaleak, probatzea gustuko dutenak "Esperimentatzaileak"

Makillajea jolas moduan bizi dute: kolore berriak, estilo ausartak eta look ezberdinak probatzen dituzte. Horregatik, MakeUp Machine bezalako gailu adimendun eta pertsonalizatu batek euren sormena askatzeko aukera ematen die.

MAKE-UP MACHINE

2. BEZERO-SEGMENTUA

Makillatzen ikasi nahi baina denborarik edo trebetasunik ez dutenak

Badira makillajea gustuko dutenak baina ez dakiten nondik hasi. Askotan ez dute teknikak menderatzen edo ez dira ausartzen. Gailuak konfiantza ematen die, eta emaitza politak lortzea errazten du, presarik gabe eta frustratu gabe, askatasun eta pertsonalizazioa irizpide nagusia izango delarik.

Behar bereziak dituzten pertsonak (ikusmen edo mugikortasun arazoak, edo bestelako zailtasunak)

Haientzat makillajea ez da soilik estetika kontua: autonomia eta segurtasuna irabazteko modu bat ere bada. MakeUp Machine-ek eguneroko errutina errazten du eta euren kabuz moldatzeko aukera ematen die. Haientzat makillatzea erronka bat izan daiteke laguntzarik gabe.

Epe luzera aurrezte bilatzen dutenak

Pertsona askok ez dute hileroko makillaje-zerbitzuetan gastatzeko aukerarik. Gailu honi esker, etxean bertan profesional baten antzeko emaitzak lor ditzakete, denbora eta dirua aurreztuz. Hau da, etxean bertan emaitza profesionala lortzea, kosmetikoen gastua eta denbora optimizatuz.

Teknologia berriak probatzea gustuko duten pertsonak

Berrikuntza probatzen lehenak izaten diren horiek, “early adopters” deiturikoak. Produktu adimendun eta futuristek liluratzen dituzte, eta MakeUp Machine beraientzat esperientzia dibertigarri eta berritzailea bihurtzen da. Produktu futurista eta adimendunek liluratzen dituzte.